

Gema Ines Murillo: “Aldaketa bat behar da euskararekin; ez hizkuntza polita delako, baizik eta gure hizkuntza delako, eta zaindu behar dugulako”

Gema Ines Murillo *Bihotx* taldeko kidea da eta gitarra jotzeaz gain, txalaparterekin ere aritzen da. Gainera, Orereta Ikastolako LHko eta DBHko musikako irakaslea da. Bi etapetan lanean aritzen denez, gazteen euskara erbilera eta musika erreferenteen inguruan aritu gara berarekin solasean.



LHn euskara asko entzuten al da? Eta DBHn?

Ba egia da LHn, eta hori nik uste denak konsziente garela, geroz eta gutxiago entzuten dela euskara. Nire arloan, musikaren arloan, egia da gehienek entzuten duten musika “erdaraz” dela, reggaetoi estilokoa, eta hor ere eragin handia dute gaur egungo estereotipoek, telebistak (programak eta hori). Orduan, LHn eta DBHn zoritxarrez geroz eta gutxiago entzuten da euskara.

“LHn eta DBHn zoritxarrez geroz eta gutxiago entzuten da euskaraz.”

Adinak eragina duela uste duzu?

Adinak baino, lehen esan dizuedana, gaur egun entzuten den musikak, telebistan ikusten ditugun programek, eta gero etxean zein den ama-hizkuntza ere, horrek eragiten du. Egia da DBHn, kuadrillan eta horrela ibiltzerakoan ere asko aldatzen dela; euskaldun giro batean bazabiltzate ba euskaraz eta bestela ba beste hizkuntza batean. Orain gainera “Blaitu” martxan jarri da, eta emaitza politikak ateratzen ari dira; hor ere euskal musika sustatu nahi dugu, eta nik uste dut horrek lagun dezakeela.

Gelan eta jolasgaraian hitz egiten duten hizkuntza berdina da? Edo hizkuntza aldaketa bat dago?

Bai, hizkuntza aldaketa bat dago, “txip” aldaketa bat bezala da. Gelan azkenean, irakaslearen aurrean ikasle batzuk asko mozten dira, baina badaude gazteleraz

kalean edota gela barruan berdin egiten dutenak. Baina beste batzuen kasuan, segun eta ze lagunekin dauden, ba ikusten da aldaketa. Hori niri ere gertatzen zait, kalean segun eta norekin edo tartean baldin badago norbait euskalduna ez dena, ba erdarara joaten zara zuzenean. Hori ere hemen ere gertatzen da zuen artean, eta LHn ere.

“Nire ustez, gurasoek sema-alabei Euskal Herriko musika tradizional eta dantzak erakustearen hori galtzen ari da.”

Zu izatez hernaniarra zara, izan duzu Orereta Ikastola ez den beste esperientziarik? Gazteekin duzun harremana hizkuntzari dagokionez, nolakoa da?

Ni Orereta Ikastolan hasi baino lehen Hernanin egon nintzen 10 urtez, bertako 5 ikastola eta eskola ezberdinetan musikako eskolak ematen, eta bai alde handia zegoen. Adibidez, Langile Ikastolan giro oso euskalduna zegoen, Elizatxon ere, baina adibidez monjen ikastolan nabaria zen aldea, baina etorkin asko zeuden, eta horrek ere eragina zuen. Egia da atzera begira euskararen erabilera nire ustez handiagoa zela. Aldaketa bat behar da euskararekin; ez hizkuntza polita delako, baizik eta gure hizkuntza delako, eta zaindu behar dugulako. Egia da ez dakiten lagun horiekin ere, batzuetan itzultzaile lanak egin behar ditugula, baina beraiek ere belarria egin behar dute.

Zu gazte zinela nolakoa zen euskararen erabilera?

Nire garaian, nire gelan 15 ginen denak euskaldunak. Adibidez, nire gurasoak kanpotarrak dira; nire ama Extremadurakoa eta aita, aldiz, Zamorako herri txiki batekoa. Baina beraiek oso argi zeukaten, eta asko eskertzen diet, ze txikitatik bai nire lehengusuekin, bizilagunekin, gelako lagunekin... euskaldun ingurune batean ibili izan naiz. Orain geletan jende gehiago dago, lehen jolastera joaten ginen, eta gainera ez zegoen mugikorrik; horrek asko eragiten zuen. Oso-oso euskalduna, baina baita musikan ere; punka rocka, eta estilo horiek zeuden. Asko aldatu da.

“Nire garaian nire gelan 15 ginen denak euskaldunak”

Gaur egungo haur-nerabeek zein musika erreferente dituzte?

Reggaettoa, trap estiloak.. eta musika erreferenteak Maluma, Rauw Alejandro, Rosalía... Niri ere gustatzen zait, ze denetarik entzun behar dugu bizitza honetan, baina egia da musika erreferente horiek izanda eta musika gure eguneroko bizitzan dagoen zerbait denez, ba erdarara joaten zarela. Baina zorionez gaur egun talde asko ditugu, adibidez; Kai Nakai, reggaettoa egiten duela, Duplak egiten duela pixka bat reggaettoa, trapa, elektronika... Zetakek ere asko egin du. Nik hor ikusten dut beste etorkizun bat. Chill Mafia, Nikotina taldea; STR, egiten dituela gehiago Funky eta disko estiloak. Nik asko gomendatzen dizuet, eta ikasleei ere Badok web orrian sartzen baldin bazarete euskal musika pila bat aurki dezakezue. Oso ondo dago, eta jartzen duzue edozein musika estilo eta estilo hori egiten duten musika taldeak ateratzen zaizkizu. Ze garai batean hemen Euskal Herrian entzuten zen musika zen ska, punk, rocka... Baina aldatzen ari da, eta iruditzen zait eragin handia izango dutela gazteengan.

Gaur egungo teknologia berriek eraginik badutela uste duzu?

Bai, adibidez nik uste faltan botatzen dugula orain modan dagoen ChatGPT eta Inteligentzia Artifiziala, gaur egun ditugun erreminta gehienak, nik musikarako erabiltzen ditudanak (bai BandLab edo Moises ed horiek guztiak) erdaraz daude, eta bai faltan botatzen ditugula ba euskaraz. Inteligentzia artifiziala, oso erreminta ona da, baina nik faltan botatzen ditut webgune asko euskaraz. Adibidez, asko erabiltzen dugu ere beste webgune bat, Pixabay izenekoa, eta oso ondo dago, musika efektuak jaisteko, eta musika deskargatzeko (ez du copyrightik, hau da doakoa da). Baina bilatzailean jarri behar duzu “miedo” edo “efecto de sonido: pasos”, euskaraz jartzen bauduzu ez du funtzionatzen. Horrek ere asko eragiten du, ze azkenean informazioa bilatzeko eta webguneak aurkitzeko erdaraz jarri behar duzue.

Hizkuntzarekin batera, nolako kultura transmisioa egiten da gaur egun zure ustez?

Nire ustez, gurasoek sema-alabei Euskal Herriko musika tradizional eta dantzak erakustearen hori galtzen ari da. Lehen hau ez dizuet kontatu, baina garai batean abesten genuen pila bat, gelan, ikastolan; baina ez musikan bakarrik, baizik eta

tutoreak agian gitarra bat zeukan, eta noizbehinka hartu eta euskal kankak. Hori galdu da, eta horrek erlazio handia dauka ere kultura transmisioarekin. Gaur egun batzuk agian ez dakite zein ziren Mikel Laboa, eta Xabier Lete adibidez; edo zein diren euskal instrumentuak, edota agurra zer den. Hori galtzen ari da, eta ni gogoratzen naiz garai batean denok jakin behar genuen gauza bat zela. Gaur egungoa ez dakit, ze orain ia dena da mobilarekin, gutxi transmititzen da.